errigora

errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

## Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

# Herriak egiten du herria




aek

ikastolenelkartea

Sortzen



### Beltza 55€

Orburuak · Zainzuri zuriak · Pikillo piperrak · Oliba-olio birjina estra · Botila ardoa · Melokotoia almibarrean · Melokotoi marmelada · Tomate frijitua · Potxak · Teilak · Mahats-zukua · Piper-mamia · Kardua

+ 2022ko egutegia



### Berdea 65€ eko

Orburuak · Zainzuri zuriak · Pikillo piperrak · Oliba-olio birjina estra · Botila ardoa · Ardo-ozpina · Dilista lehorrak · Arroza · Pasta · Barazki-menestra · Sagar-zukua · Teilak

+ 2022ko egutegia



### Zuria 75€

Orburuak · Zainzuri zuriak · Pikillo piperrak · Oliba-olio birjina estra · Botila kriantza · Ardo zuri apartsua · Patxarana · Pikillo marmelada · Txokolatezko zigarretak · Patxaran-pastak · Polboroiak

+ 2022ko egutegia

## Zer da Errigora?

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da. Agerra —Nafarroa hegoalde eta erdialdea— du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanez, euskaratik, euskararako eta euskaraz.

Egunetik egunera gero eta zabalagoa den komunitate batek ematen dio gorputza ekimenari; ilusioz eta anbizioz ari garen herritar, nekazari, ekoizle, euskaltzale eta kontsumitzaileez osatutako sare anitz batek. Gure txikitasunetik herrilan handi bat gauzatu nahi dugu, Nafarroak Euskal Herria behar duelako eta Euskal Herriak Nafarroa behar duelako.

### ¿Qué es Errigora?

Errigora es una iniciativa popular que tiene como eje la zona media y el sur de Navarra. Valiéndose del *auzolan*, pretende abrir paso a los alimentos propios de esta tierra en Euskal Herria. Desde, en y para el euskera.

### Errigora, qu'est-ce que c'est?

Errigora c'est une initiative populaire dont l'axe est la zone centrale et le sud de la Navarre. Reposant sur l'auzolan, elle prétend promouvoir les produits du terroir dans tout le Pays Basque. Depuis, en et pour le basque.

### La campaña

Del 23 de octubre al 11 de noviembre se pueden pedir cestas con productos de la huerta navarra. El 25% de su valor se destinará a ayudar al euskera en el sur y la zona media de Nafarroa.

### Campagne

Du 23 octobre au 11 novembre on peut commander des paniers composés de produits navarrais. 25% de leur valeur sera affectée au soutien de la langue basque en Navarre.

## Euskarari puzka

Bi kanpaina nagusi egiten ditugu urtero. Udaberrian *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura*: bertako oliba-olio birjina estra eta kontserba-sortak Euskal Herri osoko etxeetara banatzen ditugu bertako ekoizpena eta ekonomia sustatuz.

Udazkenean, aurtengoan urriaren 23tik azaroaren 11ra, *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka*: Nafarroa hegoalde eta erdialdeko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eramaten ditugu, eta, auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua egiten zaio (saski bakoitzaren balioaren %25). Ekarpen hori ezinbestekoa da zonaldeko ikastolentzat eta AEK-ren euskaltegientzat, baita sare publikoan D eredua sustatzeko dinamikentzat ere. Gainera, Agerraldia egitasmo berriaren iturburu eta sustengu ere bada.




## Agerraldia martxan da!

Euskarazko ludotekak 18 herritan, euskara-planak ekoizleen etxeetan, Union Tutera kirol-klubaren sorrera, euskararen egun arrakastatsuak, hizkuntza-paisaia euskalduntzeko ekimenak, bertso eskolak, memoria feministaren erakusketak, sentsibilizazio kanpainak... Urtebetean pausu erraldoia eman dugu euskararen ezagutza bultzatzeko, erabilera sustatzeko eta aldeko jarrerak birsortzeko.

Irudian, Sartagudan kale-izenen xafla elebidunak kokatzeko ekitaldia, 2021eko uztailean. Nafarroa Aurrera elkarteak Udalarekin eta Agerraldiarekin elkarlanean ondu duen egitasmoa inguruko hainbat herritan errepikatuko da datozen hilabeteetan. Zaila izanagatik, urte emankorra izan dugu: pandemiak ezarritako oztopoei aurre egiteko gai izan gara eta saretze-lan handia egin dugu.